

ZER DA EIKASI?



NOLA IKASI TELE-IRAKASGAIK?

Irakasgai telematikoak ikasteko gune birtuala da, Moodlerekin osatua.

eikasi DBHko ikasleentzako plataforma bat da, hautazko irakasgaiak ikasteko modu berri bat, gelatik haratago ikasi daitezkeen hautazko gaiak dira:


- Arkeologia (gaztelaniaz eta euskaraz)
- Ipuin Tailerra (**Cuentos** gaztelaniaz, **Tales** ingelesez eta **Ipuinak** euskaraz)
- Matematika

Esaintza eleanitza da: euskaraz, gaztelaniaz eta ingeleraz; astean 2 orduz, kurtso osan 70 ordu betetzen dituzu. Ikaskideekin [portaera egokia](#) eukitzea eskertzen da: horrela denok gehiago eta hobeto ikasiko dugu. [Arartekoaren](#) material didaktikoak eta [Netiketaren](#) irizpideak lagunduko digute.

ZER DA NETIKETA?

Wikipedian definizio hau aurkitzen dugu: [Interneteko](#) eztabaidetan, eta bereziki, [posta elektronikoa](#) erabiltzerakoan zaindu beharreko arauak dira **netiketa**. Honako arauak jarraitu ditzakezu:

- Baimena eskatu, inor gehitu aurretik [posta-zerrenda](#) batean.
- Zaindu bidaltzen dituzun artxibo erantsien neurria eta formatoa: denek eskuratzeko eta irakurtzeko moduko fitxategiak erantsi, ze programa behar duten azalduz.
- Jende guztiak irakurtzeko formatuak erabili testu dokumentuak bidaltzeko (RTF adibidez)
- Identifikatu dokumentu atxikiak.
- Ez idatzi LETRA LARRIZ. (adierazten du garrasika zabiltzala)
- Ez iraindu inor sarean. Eta, are gutxiago, ez ezkutatu anonimatoan beste inor iraintzeko.
- Garbitu mezuetan hartzaileen zerrenda amaigabeak.
- Ezkutatu taldeetako helbideak.
- Pertsonalizatu mezua.
- Ez sinestu hortik zehar dabiltzan gezurrak.



Joxe Aranzabalen [irizpideak emaila](#) erabiltzeko ondoko hauek dira:


- Garbitu mezuen zerrenda amaigabeak.
- Ezkutatu taldeetako helbideak.
- Pertsonalizatu mezua.
- Identifikatu dokumentu atxikiak.
- Ez sinestu hortik zehar dabiltzan gezurrak.

ZER DA ZIBERBULLYINGa eta nola ekidin

[Arartekoaren materialean](#) honela difinitzen du: "Bitarteko telematikoak erabiltzea, parekoen arteko jazarpen psikologikoa egiteko. Sarritan bullyingaren ostean, hau da bititza errealean edo mundu fisikoan gertatzen den jazarpena, ziberbullying-a etortzea".

GAZTEENTZAKO AHOLKUAK: eikasin eta oro har Interneten ibiltzeko

- Oso kontuz ibili datu pertsonalekin: izena, telefonoa, helbidea, argazkiak, ikastetxea... KONTUZ eman itzazu.
- Jarri arreta berezia netiketari (Interneteko jokabide arauak, zelan agurtu, emotikonoak erabiltzea animo-egoerak adierazteko, maiuskulaz ez idaztea...). Gaizki ulertu bat sortuz gero, saia zaitez adeitasunez argitzen.
- Ez erantzun probokazio bati, are gutxiago haserre bizia bazu. Hobe da lehenago lasaitzea. Hamar arte zenbatzea ez bada nahikoa, egin apur bat entretenituko zaituen zerbait, berriz ere ordenagailuaren aurrean jesarri aurretik. Erantzutea da ziberabusatzaileari eman diezaiokezun pozik handiena, eta arazoa handitu baino ez duzu egingo, modu horretan jokatuta.
- Mehatxuak edo jazarpenak bere horretan jarraitzen badu, gertatutakoaren berri eman zure teletutoreari, irakasleei edo/ta konfinatza ematen dizu pertsoneri. Posiblea baduzu frogaren bat gorde edo inprimatu (control P) mezua edo pantailan agertzen dena; ondoren itxi konexioa eta eskatu laguntza pertsona heldu bati.
- Abusatzaileek zuri buruzko on-line informazioak Interneten argitaratu ote dituzten zalantzan bazu, Google bilatzailea erabil dezakezu zure datuak bilatzeko (izena, ezizena...), eta Sarean zuri buruzko erreferentziarik ba ote dagoen ikusteko.



IRAKASLE ETA GURASOENTZAKO AHOLKUAK

Gure ikastetxean edo ingurune telematiko hauetan halako egoera baten berri izango bazenu, tentuz eta zentzuz jokatu.

Zalantzak argitzeko aholku hauek jarraitu ditzakezu:

- Adin txikikoei **konfiantza** nahikoa eman behar zaie, laguntza lasaitasunez eska diezazuten.
 - Ez jokatu zakar (haserretuz adibidez), horrela ez dira-eta gauzak konponduko.
 - Lehenengo, babestu adin txikikoa, haren Larritasuna arintzeko.
 - Gero, helduko da ekintzak hasteko unea: tutorearekin hitz egin, inguruneke teletutoreei eta administratzaileari abisua eman, ikastetxeko arduradunei komunikatu...
- Zuk/zuek neurtu noraino heldu behar den. Baina ez gelditu ezer egin gabe.
- Egon adi erasoaren larritasunari eta maiztasunari, bere benetako neurria hartzeko.
- Zuzeneko kalte fisikoko mehatxu larriak egiten direnean, gaia oso serio hartu behar da, batez ere baldin badakigu erasotzaileak adin txikikoari buruzko informazio zehatza duela (esate baterako, bere etxeko helbidearen edo ikastetxearen berri); badaezpada ere poliziarengana jotzea komenigarria ote den baloratu behar da, honelako kasuetan.

